



Kultura Iñigo Alberdi E.O.S.ko Zuzendari Nagusi berria
Zer berri Mobilizazioak eta grebaren oihartzuna herrian

pitpilean

**SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA**
129. alea, 2006ko
martxoaren 10ean



2006rako
aurrekontuak
onartu dira



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

**MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK**

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 20 18 44



Poxpolo ta Mokolo SORALUZEN

MARTXOAREN
31N
ARRATSALDEKO
5:30 ETAN
**PLAZA
BERRIAN**

"Bai eskolak euskalduntzeari!"
KANPAINAREN BARRUAN

Antolatzaileak:

Pil-pilean Euskara Elkarte
Euskal Herrian Euskaraz

Laguntzailea:

Soraluzeko Udala (Euskara Saila)



ARIANNE UNAMUNO

Ahal banu

Izotzeko zurtasunaren gainean, egur pusketa beltzak ikatz bihurtzen ari dira Guatemalako sukalde ilunetan, gure eskolako umeen etxeetan. Gehinetan ez da maitasun izpirik sartzen lehioetatik eta eskolako argitasunean epeltzen dira.

Lehenengo ataritik, neskatilei eskutik helduta irten da Ama gaztea; denak garbi eta ondo orraztuta doaz

eskolarantz. Bide bazterrean etzanda, senarra, Aita, lurrean botata topatu dute, alkoheletan itota, bere baitatik jaurtita. Inori atsegin ez zaizkion hitzez agurtu ditu bere bi alabatxoak. "Buenos dias, Señor". Muxu busti artean agurtu dugu elkar. Burua makurtu eta eskolarainoko bidea markatuta utzi dugu malko-tantekin.

Bigarren etxean ere, ikatza gori-gori. Ama kontu eske joan zaio senarraren arrebari, diru madarikatuzko zorren bat omen. Hark gogo txarrez, ez omen dio ezer itzuliko. Ez da asko behar izan borrokarako eremua zabaltzeko, eta indarkeria bortitzak etxeko alabatxoa zipriztindu du. Harri batek neskatilaren burua kolpatu du eta 5 puntu josi dizkio medikuak eritetxera joan garenean. Bere etxeko atariraino ez dio nire besoa gogor estutzeari utzi. "Hasta mañana, señor". Muxu busti artean agurtu dugu elkar.

Hirugarren etxean ez dago ikatzik. Beste behin ere, Aita eta Ama ez baitira lotara azaldu ere egin.. Ez dago egurrik hezurak berotzeko. Lokartutako hotzetik, esnatutako hotzera. Gose hotzetik, izotzeko gosera. Gaur ere ixilik egon da goiz osoan, 12 urterekin bere bi anaia txikien ama eta aita hobe den arreba. Sabelak salatzen dituenak ezin ixilduta: "regaleme un par de panitos mas, señor". Hamarretakotik 4 ogitxo gorde ditu bere poltsatxoan, bazkaritarako seguruenik. Muxu busti artean agurtu dugu elkar.

Hiru etxe: alkohola, indarkeria eta miseria. Eta haurrak malko artean, ixilik, jasan ezin direnak ere jasaten. Eta ez da kasualitatea gehien sufritzen dutenak neskak izatea.

Norberak bere desio eta ezintasunekin bizi behar du, bere tortura txiki horiekin, eta hala ere nahi, ahalmen eta lorpenek ez gaituzte minetik libratzen. Ezintasuna da ezagutu dudana sentsaziorik ankerrena eta errukigabeena. Nola agertzen zaidan neure aurrean, bete-betean, nitaz barrez balego bezala, sentitzen ari naizenaz burla eginez bezala. Gaiztoa da ezintasuna, eskeintzen saiatzen naizen elkartasuna eta maitasuna estali eta gaitzesteraino. Momenturo pentsatzen baitut: "ahal banu..."

Telegrapak

Hapa, hapa! **Stop.** ale interegarria dator. **Stop.** aurrekontuak onartu ditu Udalak. **Stop.** 2006xan herrixan diruak zertan gastatuko diran alegia. **Stop.** alderdiak emon dabe iritzia bai. **Stop.** urteroko legez, egin dittuenak bakarrik dare alde eta beste danak kontra. **Stop.** oso kontra batzuk eta gitxiago beste batzuk. **Stop.** ostera. **Stop.** herrittarrak... **Stop.** herrittarrak. **Stop.** eta zergatik ez, herrittarrak! **Stop.** ez dogu ezer asko pintatzen. **Stop.** normala izango da. **Stop.** zeezer jakin nahi dabena hemen dauka informazio pittin bat. **Stop.** greba eguna be antzeko parezido. **Stop.** antolatu zebenak bakarrik alde. **Stop.** beste danak oso kontra edo kontra. **Stop.** eta herritarrok. **Stop.** hemen be emoten dau ez dogula asko pintatzen. **Stop.** danak gure izenian berba eta berba. **Stop.** azkenerako betikua; batzuek negar eta bestiak ... **Stop.** eta hola jai dago hemen. **Stop.** sufrimentuaren bedar txarrak sustarretik etara ezik... **Stop.** ia ba ganora eta zentzun pixkat zabaltzen dan goiko geruzotan. **Stop.** Emakumien Eguna be pasatu da. **Stop.** ikasgai batzuk gogoratu dittugu berriz eta aurrera! **Stop.** zorianak Iñigo Alberdi plazentzitarri be. **Stop.** EOS-eko zuzendari! **Stop.** ez zara makala! **Stop.** noizbaiten eka- rri Plazentziara! **Stop.** bixen bittartian RK Zulo be hor dabil aurtengo kontzerturako aurrelanetan. **Stop.** eta gu entzuteko desietan! **Stop.** "Oi Baldoo-orba...!"



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze
Telefona: 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ERREPORTAIA

Martxoaren 2an egindako Udal Batzarrean onartu ziren 2006rako aurrekontuak, 3777.277,13 eurokoak. Diruak zertan gastatuko diren jakin nahi izan dugu, bai eta alkaterean eta oposizioko alderdien aldeko eta aurkako jarrerak ezagutu ere.

Zorion agurrak



Euker Oliveri

Martxoaren 7xan

Zorionak eta
muxu haundi bat
etxekuen partez!



Koldo Etxaniz

Otsailaren 28xan,
7 urte

Zorionak eta
muxu haundi bat
etxekuen partez!



Oihane Vila

Martxoaren 9xan,
16 urte

Zorionak!! eta
ondo pasau zure
egunian. Muxu asko
etxekuen partez!



Iraultza Ostolaza

Martxoaren
20xan, 3 urte

Zorionak
sorgintxo!
Zurekin beti
alaitasunez beteta
gaoz. Muxu
haundi bat
amatxo, aitatxo
eta etxekuen
partez!



Ane Ugalde

Martxoaren 21ian,
23 urte

Zorionak
Anetxu!!
Zahartzarua gogoz
hartzeko animo
pila Torreviejako
amapolian partez!!

OHARRA

EHE Zozketa

Zenbaki saritua: 577
Harremanetarako: 662 19 10 92 (Gotzon)

Astebeteko epean ez bada irabazlerik azaltzen, beste zozketa bat egingo da.

Iragarkiak

- **Etxea alokatzen da** Rabal kalean,
jantzita.
600055759

Jaiotakoak

JOSU LEDO AGUADO
OIHAN LARRAÑAGA AGIRRE
NAROA ZUBIAURRE UNAMUNO

Hildakoak

MARIA VILLANUEVA QUEVEDO
JOSE MARIA URANGA ELORZA
FERMINA GOJEASKOETXEA BOLLAN

Gutunak

Eskerrik asko auzokide!

Jende gutxi jakin arren badugu Ezosi bidean aingeru goardako bat elurra den bakoitzean guregatik arduratzen dena. Alberto Iraolagoitiak, Iribe baserrikoak, lanera joan aurretik bere traktorari elurra kentzeko pala jarri eta Ezosi auzoa goitik behera garbitzen du. Askok pentsatuko du beretzat egingo duela

baina benetan aipagarria da nola saiatzen den ertz guztiak ondo ondo garbitzen aparkalekueetatik kotxeak atera al izateko.

Bejondeizula eta eskerrik beroenak!

Oihana Mendizabal Gorostidi



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ekintzak

Eibarko XXIX. Antzerki Jardunaldiak 2006

Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentroko Antzerki Ekimena; Narruzko Zezen Antzerki Taldea, UNI Kultur Elkarte. 2006ko martxoaren 3tik apirilaren 3ra. Martxoaren 11n, larunbata, 20:30ean, "Hamelin", martxoaren 14an, asteartea, 20:30etan "European Blues", martxoaren 15ean, asteazkena, 20:30ean, "El Florido Pensil", martxoaren 11n, osteguna, 17:30-21:00, "La importancia de llamarse Ernesto", martxoaren 17an, ostirala, 20:30ean, "La Sucursal", martxoaren 11n, larunbata, 20:30ean, "Arte", martxoaren 11n, igandea, 18:00ean, "Los tres cerditos". Tfnoa.: 943 20 84 44.

Ikastaroak

Langabeentzako

Elektromekanikako Ikastaroa

Euskadiko Formazio Fondoa.
Langabeendako. 485 ordu.

Elektromekanikako ikastaroa: "CNC makina-erreminten prestakuntza-programazioa". Martxoaren 27an hasiko da eta uztailaren 21ean amaituko da, 08:00etatik 14:00etara izango da. Epea: 2006-03-24. Tfnoa.. 943 34 41 22

Soinu teknikari ikastaroa

Andoingo Zinema eta Bideo Eskola.

Langabetuendako. 2006-03-22tik 2006-11-23ra arte.

Prestakuntza teoriko/praktikoa: Ikus-entzunezko baliabideen hastapenak, Soinuaren hastapenak, Soinua hartu, tratatu eta grabatzea... Ordutegia: astelehenetik ostiralera 15:00etatik 20:00etara.

Uztailean: 09:00etatik 14:00etara.

Abuztuan oporrak. Tfnoa. 943 594190.

KREA

Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI

Tel.: 635731268

EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Zer irizten dotsazu?


Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna izan da. Mundu mailan oso argi dago alde handia dagoela herrialde batetik bestera. Gurean aurrerapen batzuk izan dira baina iritzi guztiak ez datoz bat egoeraren diagnosia egiterakoan.

Parekidetasunari dagokixonez, zertan iruditzen jatzu gabizela hankamotz?



Belén Molledo
53 urte,
etxeakoandria eta ofizianistia

Lanian bertan, emakume izatiagaitik, uste dabe ez garala gai lan batzuk egiteko, nahiz hori esaten dabenak baino hobeto egin. Txarrena da, belaunaldi berriak be matxista samarra dala, danetik dagan arren.



Antonio Fresnedo
78 urte, jubilatua

Danian orokorrian. Ondio be gizona gainetik dago eta aspaldi hasi biharko ginake honetan lanian. Ulertezina da sexu bat gainetik egote hori, danok berdinak baldin bagara, danok berdin bukatu bihar badogu.



Iker Perez
14 urte, ikaslia

Lan arluan esango neuke aurrerratu dala gitxien. Lan batzuetan gutxiago ordaintzen dotselako ondio be emakumieri. Halata be, zeoze aurrerratu da parekidetasun bidian.



Arantxa Arizaga
15 urte, ikaslia

Danian zeoze aurrerratu bada be, gutxien igual politika arluan. Ondio be gai garrantzitsuenetan gizonak dira nagusi. Horretaz gain, etxekolanetan neskiari gehixao eskatzen jakola iruditzen jata. Baina bagoiaz aurrerruntz!



Ainhitze Elizburu
25 urte, argazkilaria

Nik orokorrian esango neuke, kontzientziaziñuan benetan aurrerratu dana baino gehixau aurrerratu dala pentsatzen dala. Danian dago asko egiteko: aurpegi gehixao ikusten diran arren boteria ondio be gizonen esku dago; lan munduan...



Ander Epelde
52 urte, irakaslia

Bat esatekotan etxekolanetan esango neuke, baina ez da ez bakararra. Lan munduan be danetik egin arren emakumiak, kasu batzutan gutxiao kobratzen dabe. Gainera agintzen ondio be gizonak dira nagusi, zuzendaritzetan...

argitek
ELETRIZITATEA

David Rascón
607 486 428

Instalazio eta
erreforma
elektrikoak etxebizitza
eta enpreseetan

Baltegieta, 17 • 20590 SORALUZE

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81



Bereziki denda eta tabernek egin zuten greba



Ezker Abertzaleak joan zen egunerako azken gertakariak eta dis-pertsio politika salatzeke helburua-rekin deitu zuen greba egunean ja-rraipen ezberdina izan zen sektoreka. Hainbat lekutatik adie-razitakoaren arabera, industrian

baxua izan zen baina merkataritzan ia denda eta taberna denak itxita izan ziren arratsaldeko 18etatik 20etara. Ordu horretan ehunen bat lagunek manifestazioa egin zuten "Konponbide demokratikoaren alde! Dispersiorik ez!" lelopean.

Udaleko lanpostu berrietarako deialdia

Udaleko etxez-etxe laguntzaile lanpostua eta Kontabilitate eta Aurrekontuetako Erdi mailako Teknikari lanpostuak betetzeko lehiaketa-oposaketa datozen asteetan hasiko da. Instantziak aurkezteko epea 2006ko martxoaren 27an (etxez etxe laguntzailearena) eta 31n (Teknikariarena) amaituko dira eta deialdia arautzen duten oinarriak 2006ko otsailaren 20ko 34. zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Bertan daude jasota lanpostu-erburuzko argigarri gehiago. Instantziak guztiak aztertu ostean, idatzizko probak egitea izango da hurrengo pausoa

Santa Ana kalea aste honetan itxiko dute



Santa Ana 14tik Udaletxerako bidea ibilgailuendako itxita egongo da datozen asteetan, Izartu II programako Santa Anako zaharberritze lanak ekitera doaz eta. Bi norabide izango ditu beraz Santa Ana kaleak, lanek irauten duten bitartean. Udaltzaingoa semaforoak jarri edo ez aztertzen ari da. Santa Anako lanak bukatzean Kalebarrenkoekin hasiko dira. Bi kaleetako lanek 5 hilabeteko epan amaituko dituztela agindu dute Amaral enpresako arduradunek.



JUANJO URRUTIA HIL ZENeko URTEURRENA. Martxoaren 5ean senide eta lagunek Juanjo Urrutia errefuxiatua Uruguain hil zeneko urteurrena gogoratzeko ekitaldia egin zuten mendi gainean eta herrian.

Javier Alonso Zelaia
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

etxera
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

30 irakasleren agerraldia



Martxoaren 4an, Soralueko hogeitamarren bat irakaslek agerraldia egin zuten Plaza Berrian "Bai eskolak euskalduntzeari!" babesa emateko. Agerraldia egiteaz gain, euren atxikimendua adierazi zuten sinatzeko orrietan sinatuz. Horrekin batera, hurrengo asteetan ere sinadurak biltzeko mahaia izango da kalean. Dagoeneko 200 sinadura baino gehiago batu dituzte.

Emakume taldea berdintasuna aldarrikatzen



Martxoaren 8an Emakumearen egun internazionala zela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Soralueko Emakume Taldeak. Asteazkenean Precarias a la deriva dokumentala ikusi ondoren, kalejira errebindikatzailerak egin zuten jai giroan herriko kaleetan. Ostegunean eta ostiralean Princesas filma eta ipuin kontaketa izan zituzten kapillan.

Soraluce kooperatiba BECeko ferian saritua

Egunotan Barakaldoko BECen izan den Makina-Erremintaren Biurteko ferian epaimahaiak ohorezko saria eman dio Osintxuko Soralue kooperatibari, FX-10000 proiektuarengatik, honek ergonomia eta segurtasun alorretan egin dituen ekarpenak aintzat hartuta. Bestalde, joan zen astean jakin zen Rafa Idigorasek ordezkaturako duela Rafa Barrenetxea zuzendari gerentea. Barrenetxea Grupo Danobateko gerentziaz arduratuko da aurrerantz.

Ur kontsumoari buruzko erakusketa

Martxoaren 2an eta 3an, Kutxak



antolatuta, urari buruzko erakusketa ibiltaria izan zen ikusgai Zubi Nagusian. Uraren kontsumoa murrizteko hainbat kontseilu ematen da. Sukaldean, esate baterako, ontzi garbigailu batek garbiadi bakoitzean 25 litro erabiltzen baditu, ontziak eskuz garbitzean, kanila 10 minutuz zabalik lagatzen badugu, 150 litro erabil ditzakegu.

Bainugelan, bainatu beharrean dutxa motzak hartzea gomen datzen da. Bainatzean 300 litro-tik gora kontsumi ditzakegu; 5 minutuko dutxan, 100 l.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Martxoaren 2an egindako Udal Batzarrean onartu ziren 2006 urterako aurrekontuak, 3.777.277,13 eurokoak, iazkoak baino 775.740 euro txikiagoak, EAJ (5)–EA(1)-ren aldeko 6 boto eta SAH (3), PSE (1) PP (1) aurkako 5 botorekin. Oposizioko alderdiek bat egin zuten, aurrekontuak ez direla partehartzaileak eta guztien artean adostuak izan salatzerakoan. 8 elegite aurkeztu zituen Nuñez alderdi popularreko zinegotziak, baina bat bera ere ez zen onartua izan. Aurrekontuen osotasunari egindako elegiteak, hala ere, SAH eta PSEko ordezkarien aldeko botoa izan zuen.



3.777.277 euroko aurrekontua 2006rako

775.740 euroko jeitsiera.

Iazkoak baino 775.740 euro txikiagoak dira aurtengo aurrekontuak. Gastuen partidan, pertsonalarena (1.208.635 euro) eta inbertsioak (785.943 euro) dira nagusienak. Sarreretan, berriz, Fondo forala (2.121.220 euro), Udal zergak (522.530 euro) eta Izarturi eta eskolako jolastokiari dagozkien diru laguntzak (412.162 euro). 775.740 ko diru jeitsieraz galdetuta, Udal Gobernuko ordezkariak adierazi digute iaz Izartu I –eko gastuen %75 a BEZ-ik gabe jasotzen zutela, eta aurtengatik BEZ-a barne. Horrek aurtengo gastuen txikitzea ekarri du eta ez dute iaz bezala mailegurik eskatu beharrik izan.

Inbertisoak nagusiak :

Izartu eta eskolako patioa

Izartu II programaren barruan Kalebarren, Santa Ana eta Zubi Nagusiko zaharberritze lanak eta Ezozi Bideko boladizoak 465.962 euroko inbertsioa suposatuko dute. Herri Eskolako patioaren konponketan 203.000 euro inbertituko ditu udalak. Hezkuntza delegaritzak dirutza horren %60 a eman du.

Aurrekontuetatik kanpo, diputazioaren lanak

Foru Aldundiak 3 inbertsio egingo ditu aurtengatik herrian: Urkulutik Eibarrerako ur transbasea (Udal iturrien arabera artean zehazteke dago jarraituko duen ibilbidea); kiroldegi

gainaren proiektua (Aldundiko teknikariak erredaktatzen dihardutena) eta Sagar Errekako boladizoa (uztailean hasia espero dena).

DIRU PARTIDAK BATZORDEKA

	2005	2006
Hirigintza	1.639.518	785.943
Osasuna	97.306	109.595
Kultura	129.030	165.275
Hezkuntza	58.117	57.945
Euskara	44.158	45.836
Kirola	44.880	44.880
Nekazaritza	41.008	61.197
Ingurumena	12.020	12.020



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1.º ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

OPOSIZIOKO ALDERDIEN IRITZIAK

PP

Francisco Javier Núñez alderdi popularreko ordezkariak oposizioarekiko Udal Gobernuak izan duen elkarriketa eta kontsentso falta salatu zituen. Iaz aipatu zituen premiak berretsi zituen Nuñezek, bere esanetan “konponbiderik ez zaie eman eta”. Besteak beste, etxebizitzaren premiaren inguruko ikerketa serio bat egitea eskatu zuen, alkilerria bultzatzeko neurriak hartuz; gizarte zerbitzuen eta espazio kulturalen handitzea ere eskatu zituen, “kultura gehiago eta hobe” aldarrikatuz. Bestalde, Euskal Presoen senideei eta Udalbideri emandako dirulaguntzak kritikatu zituen.

PSE

Soledad del Bosquek dirulaguntza handiagoa eskatu zuen gizarte zerbitzuetarako eta jubilatuetxerako. “Nola da posible” galdegin zuen Solek “2003an 10.626 euroko dirulaguntza jasotzea jubilatuetxerako eta 2006an berriz, 9.146koa?”. Honekin batera, gaur egun jubilatueri gimnasiaren kostuaren erdia kobratzea salatu zuen, 2003an doakoa zen aktibitatea. “Berriz ere”, aurrekontuak “oposizioaren parte-hartzerik gabe” eginak daudela adierazi zuen Solek, eta oposizioa badira ere, euren helburu bakarra Soraluze hobe bat egitea dela gaineratu zuen.

SAH

Monika Muro S.A.H.ko zinegotziak EAJ-EA koalizioaren jarrera gaitzetsi zuen, “herritarren eta gaitzetzeko talde politikoen kontsentsua eta parte-hartzea bultzatu ordez, ‘bere’ aurrekontua inposatzen digulako”. Gaineratu zuen, “epe motzera begira” egindako aurrekontuak direla eta “aurreikuspenik gabeak”. Kultur etxearentzat, eguneko zentroarentzat eta gazte-txokoarentzat dirurik jaso ez izana salatu zuten, eta iazko eskaera berberak egin: Emakumearen Aholku Batzordea eratzea, euskara teknikariaren lanpostua sortzea, aurrekontuaren %7 a Euskal Fondeoarentzat gordetzea eta etxebizitza hutsen azterketa serio bat egitea.



ELKARRIZKETA

Oskar Gabilondo

SORALUZEKO ALKATEA

Zer azpimarratuko zenuke aurrekontuetatik?

Alde batetik Izartu II aurrera eramateko daukagun dirulaguntza; Izartu I %100ean bete genuen eta orain Izartu II-rekin jarraitzeko konpromezua daukagu. Beste alde batetik esan beharra daukat Izarturako ez dugula beste batzordeetatik dirurik kendu; alderantziz, denek izan dute igoera. Aurtengo beste inbertsio garrantzitsu bat eskolako patioako lurraren konponketa izango da. Beste premia batzuk baditugu herrian baina daukagun diru-sarrerekin besterik ezin dugu egin aurrekontu barruan. Aurrekontutik kanpo diputazioaren lanak daude.

Oposizioko alderdiek salatu dute zuek bakarrik egin dituzuela aurrekontuak

Guk aurrekontu aproximatiuak egiten ditugu, lan hori guri dagokigu. Azienda batzordean aurkezten dizkiegu gainontzeko alderdiei eta denbora ematen diegu azter ditzaten eta euren eritzi eta proposamenak jasotzeko. Gu beti gaude prest gauzak aldatzeko, proposamenak zentzudunak badira. Hemen ez dago ezer itxitxa.

Zer premia ikusten duzu herrixan?

Premia asko, baina guk sarreraren araberako gastuak asumitu behar ditugu. Kultura aldetik kultur etxea falta da, eta zinea edo erabilera anitzetarako aretoa. Datorren legealdian hori bultzatzea izango da gure as-

Sarreraren araberako gastuak asumitu behar ditugu

moa, orain Izarturekin lotuta ditugu eta aurrekontuak. Beste premia bat haurtzaindegia da. Gure lehenengo asmoa frontoiko ikastola zaharrean egitea zen baina PER-a dela eta bertan behera geratu da egitasmoa. Aukera berriak aztertzen ari gara. Beste gabezia bat aparkalekuena da baina momentu honetan ez dago aparkaleku berriak egiteko leku posiblerik, eta hori arazo bat da. Plazentzian distantzia motzetara gaude ohituta eta batzuekako kañoi fabrikako aparkalekuak oso urrin daude, nahiz eta han beti lekua egon; beste batzuk zoriondu gaituzte aparkaleku horiek egitearren. Eibarrera goazenena distantziak beste era batera neurtzen ditugu hala ere.

Zer dakizu Erregetxeko aparkalekuen inguruan?

Kalian danetik entzuten da baina nik ez dakit zenbat jente apuntau dan garagia

erosteko. Dakiten bakarra da Moyuak proiektua presatzen diharduala eta amaitzen duenian lizentzia eskatuko duela; hori da beran asmua, besterik ez dakit.

Zinea egiteko ez dago diru partidarik?

Aurten ezin gara zineko lanak egiten hasi kiroldegi gainera lanak amaitu arte. Aurten proiektua amaituko dugu eta zinea hustu eta garbitu. Lanekin datorren urtarian hasiko gara. 36 kilo dauzkagu zinerako; 50 bat behar harko ditugu.

Iñigo Alberdi, Euskadiko Orkestrako Zuzendari berria



Iñigo Alberdi plazentziatarra Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren laugarren Zuzendari Nagusia izango da, 10 urtez German Ormazabal Tolosarrak bete duen kargua hartu ostean. Eusko Jaurlaritzak otsailaren 28an onartu zuen izendapena eta martxoaren 2an Iñigoren jendaurreko aurkezpena egin zen EOS-ren egoitzan bertan Miren Azkarate kulturako kontseilaria lagun zuela. Pilpilean aldizkarian ere bere bizipenen berri emango digula agindu digu Iñigok, behin zuzendaritzako martxa hartzen duenean. Izendapenarekin "oso pozik" dagoela aurreratu digu, "erantzunkizun haundiko kargua da eta lanean has-teko desiatzen" dagoela adierazi digu. Bere lehenengo helburua "azken urteetan orkestrak lortu duen maila bikainari eustea" izango da.

RKZULOko bilera asteazkenean

Martxoaren 15ean, asteazkena, RKZULO herri mugimenduko musikari eta artistek hitzordua daukate Arrano tabernan gaueko 21:00etan, 2006. urterako egitasmoen proposamenak jaso eta jaialdien antolaketa lanetan hasteko. Iaz, Galipoteko jaia (ekainean) eta RKZULO musika jaialdia (uztailean) izan ziren antolatu ziren ekintzarik esanguratsuenak. Bilerara estreineko eta talde gabe datozenei talde berriak osatzen lagunduko zaie eta dagoeneko osatuta dauden taldeetatik ordezkari bana gitxienez joatea eskatu dute RKZULOKO eragileek.

Pailazoak eta monologoa

"Bai eskolak euskalduntzeari!" kanpainaren barruan, Poxpolo eta Mokolo pailazoen emanaldia izango da martxoaren 31an, barixakua. Ikuskizuna Plaza Berrian egingo da arratsaldeko 17:00etan. Guraso eta neska-mutikoak euskararen irakaskuntzaren aldarrikapenera biltzea da ekimen honen helburua. Apirilaren 7an berriz, "Euskaldunberri baten memorian" izeneko monologo komikoa eskeiniko du Ruben Sanchez gasteiztarak (lekua zehaztu gabe dago oraindik). Antolatzaileak Pil-pilean eta EHE dira.

"Kronenbourg festa" Mendatan

Zapatu honetan, martxoaren 11n, Azkaiter Pelox taldearen emanaldia izango da Mendata Tabernan. Jaialdia gaueko 23 etan hasiko da.

"Eguraren arima" argazki erakusketa



Martxoaren 13tik 25era bitartean Miguel Angel Otaduyren "Eguraren arima" argazki erakusketa izango da ikusgai kiroldegiko erakusketa gelan, arratsaldeko 7etatik 8:30etara astebaruan eta eguerdiko 12etatik 13:30etara zapatuetan.

Rock jaialdia Gaztetxean

Martxoaren 17an, zapatua, Freewheeling Tornados eta Mahaster River taldeen kontzertuak izango dira Gaztetxean. Taldeok Kataluniatik datoz (Bartzelonatik) eta rock musika lantzen dute. Kontzertuak gaueko 11-ak aldera hasiko dira. Azkenaldian kontzertu asko izan dira Gaztetxean eta helburuetako bat egoitza eraberritzeko dirua biltzea izango da.



2006ko otsailaren 27an hil zen,
72 urte zituela

ELENA LARRAÑAGA ASKASIBAR Goian bego

*"Amets goxotan ikusi zaitut
gure etxean barrena
Hau ikusmira zoragarria
polita eta gardena
Utzi ditzagun alde batera
atsekabea ta pena
Orain badakit gure ondoan
beti izango zarena"*



Aitor Gorosabel

ABESLARIA

Su ta Gar musika taldeko kideak abadetxeko kapillan izan ziren martxoaren 2an, DBH institutoko ikasleekin musikaz eta euskeraz berba egiten. Eibartarrak iaz hasi ziren topaketa hauek antolatzen, ikasleengan musikarekiko eta euskerarekiko zaletasuna piztu asmoz. Aitor Gorosabel kantariarekin izan gara esperientzia honen inguruko galdera batzuk egiten.

Zela jua da gaurko topaketia?

Oso ondo. Partizipatibua izan da, umore onian egon gara eta gaztiak orokorrian adi entzun dittue esaten genduzenak. Zurrumurru batzuk entzuten ziran baina hori normala da adin horretan. Tokau izan jaku Bilboko auzo marginalen batera juatia eta han ikasliak Su ta Gar zer zan be ez jakitzia. Han estu pasau genduan.

Zer egitten dozue saio honetan?

Gure bizipenak kontatzen doguz, zela hasi giñan heavy musikia euskeraz kantatzen eta zela uztartu dittugun bixak. Gure kantu ezagun batzuk jotzen dittugu eta gaztien galdereri erantzuten dotsegu ondoren. Giro majua sortzen da.

Helburua zein da?

Gure helburua ikasliak motibatzea da, euren gauzak egiteko irrika piztia. Gu oso jente normala gara eta hori ikusten dabezenian, distantziak apurtu egiten dira. Jente euskalduna musika kañerua egitten, eta horrek eurak motibatzeke balio dau, musikian eta euskararen munduan murgildu daittezen.

Zuek beti izan dozue garbi euskeraz abestia?

Hasieran ez. Orduan iñork ez zeban heavy musikia euskeraz kantatzen eta guk be gazteleraz edo ingelesez kantatzeko asmua genkan. Lagun batek euskeraz egindako letra batzuk pasau zoskuzen eta euskeraz hasi giñan. Gerora, argi euki dogu ez genduala gazteleraz kantaiko baina ingelesez kantatzia erabili do-



Aitor Gorosabel, Asier Osoro eta Xabi Bastida.

Jente euskalduna eta normala musika kañerua egitten? Horrek gaztiak motibatzeke balio dau

gu buruan. Judas Priesten omenezko disko baten be parte hartu genduan, ingelesez kantatzen, baina Su Ta Gar ingelesez? Euskal Herrixan ez gare ba? Euskeraz eta kitto!

Zein egoeratan dago euskeria Eibar-ko gazterixian artian?

Eibarren danetik dago, kuadrillaka izaten da kontua. Askok erderaz, baina euskeraz dabizenak be badira.

Zuen instituto denboretatik gaurkora

ze alde ikusten dozu?

Institutuan genbizenian gu giñan erdeldunaguak ez dakit zer baiño! Gatxa orduan baiño euskera gitxia-go egittia. Neria burruka haundi bat izan da, “zu nerekin euskeraz jarriko zaitut”. Pare bat urtian inguruko danak euskeraz jarri nituan nerekin; gaur egunian esker-tzen doste.

Disko barrixa prestatzen diharduzue, ezta?

Bai, bukatzen gabiz diskua prestatzen eta segiduan urtengo dau. “Jaingo Hilan Uhartea” jarri dotsagu izena eta estreinekoz guk produziduko dogu. Oso ilusionauta gare.

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE
Hortz Klinika



- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Txuri-Urdinen III. urteurrena



Hil hontan hiru urte beteko dira Soraluzeko Txuri-Urdinak elkarte sortu zela. Urtemuga ospatzeko, elkarte zuzendaritzakoek hainbat ekintza antolatu dituzte martxoaren 18, 19 eta 20rako. 18an, zapatua, puz-

garriak izango dira Plaza Berrian edo frontoian goizeko 11etatik aurrera. Eguerdiko 14:00etan Bazkide taldearen argazkia aterako da eta ondoren, 14:30etan bazkaria izango da Txurruka jatexean (izena eta 20 euroko seinalea Txoko kafetegian eman behar da). Martxoaren 19an, igandea, salda eta txorizoa eskeiniko da frontoian eguerdiko 12etan. Ordu berean buruhaundiak askatu eta txapliguak botako dira. Ondoren Karts erakusketa izango da. Asteburuko ospakizunen ondoren Batzar Orokorra egingo da Txoko kafetegian arratsaldeko 19:30etan.

Toribiok irabazi zuen Soraluzeko IX. saria

Gipuzkoako 23 urtez azpiko afizionatuen denboraldiko lehenengo txirrindulari lasterketan Caja Ruraleko ordezkariak izan ziren nagusi; eurenak izan ziren lehenengo hiru postuak. Jose Vicente Toribio izan zen lehenengoa helmugara iristen 3 ordu, 28 minutu eta 52 segunduko denboran.; bigarren eta hirugarren, 43 segunduren buruan Ismael Lizarraga eta Mikel Nieve taldekideak heldu ziren. Eguraldi hotza eta euritsua zela eta, lasterketa hasi zuten 129



txirrindularietatik 55ek amaitu zuten 131 kmko ibilbidea. Lasterketako antolatzaileak pozik geratu ziren eta esker oneko laguntzaile eta bolondres guztiekiko.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

ATXOTEGI

Udaberri Sarian

Mendizabal - Azkarate	22
Atxotegi - Portu	17
Atxotegi - Portu (Elgoibar)	22
Aldai - Larrañaga	15

JAUREGI

(Lesiotik urten berritan)

Mallabiko Txapelketan

Erroizenea - Jauregi	22
Uriarte - Garmendia	22

LASKURAIN

Chaffee - Galarza VI	22
Berasaluzeko IX - Laskurain	6
Del Rey - Laskurain	22
Galarza - Auxkin	7

Buruz burukoan

Urberuaga	22
Laskurain	13

AGENDA

PELOTA

Domekan, Bergaran

Chaffee - Laskurain
Capellan - Nalda

FUTBOLA

Zapatua 11, Ezoziko zelaian, 16:30ean
Sora - Ordizia (erreg.)

MENDI IRTEERA

Martxoaren 12an

Ibilaldi neurtua Bergarara



VIDAL
frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055



Errebal kalea 2 behe
Tfnoa 943 75 16 46

SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak



JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



Disenua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Aratustiak 2006

Goitik hasita:

*Ramalamalama eta
gaztaitxuak, mozzorro
lehiaketako txapeldunak;
Manelete; Mozart,
mozartesia eta beste
matrimonio bat;
Atxolingo apatxeak;
Ardogorri txaranga; Los
Panchitos y la Reina del
carnabal
plasentino; gizon bat
disfrazauta, beran
kuadrillakuekin;
superteenagers;
kongitoak mama
kongitorekin, erreketek
onak!*



kutxa

gizarte ekintza

JABIER ALBERDI



ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Argazki zaharra



Iturria: Kontrargi Argazki Kolektiboa.

Plaza Zaharrian 1988xan

1988ko Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatu zeban rallyxan etaratako erretratua da. Bertan Plaza zaharreko bankuetan jarritako ageri dira (ezkerretik eskumara); Bonifacio Maiztegi, Bautista Santo Domingo, Ramon Cid eta Juan Ignacio Lasa. Argazki hau Urizarrek etara zeban eta lehiaketako hirugarren sarixa emon zotsen.

Lehiaketa

Arpasuak...



"Arpasuak" ibaiko harrixak ziran. Ibaixaren alde batetik bestera pasatzeko erabiltzen ziran harrixak. Jentia harrion gaintik pasatzen zeban ibaia. Harri batzuk urak ekarritakuak izaten ziran baina gehienak ipinittakuak. Ufalak eruaten zittuanian berriz ipini bihar izaten ziran.

Iturria: Ramiro Larrañagaren Soraluzeri buruzko Monografia Historikoa.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Noiz kendu zan trena Plazentzian? → 1978
→ 1971
→ 1974

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra
edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Gogortuz
Fisioterapia
Zentrua

Oier Oregi Unamuno
943 75 00 22

SARIA → Fisioterapia saio bat
Gogortuz Fisioterapia
Zentruan

SARIA
Bi lagunendako afaria
Txurruka Jatetxean

**AURREKO ALEKO
IRABAZLEA**
Nieves Arrazola



Belarrak

**Loradenda
eta belardenda**

*Erosketak etxera
eramango dizkizugu*

Telf. 943 75 30 11



MENDATA taberna

Pizzak ●
Bokadilloak ●

**Sukaldetik
zure
etxera!!**

● Kazuelitak
● Razioak

ostirala **08:30 - 22:30**
larunbata **08:30 - 22:30**
igandea **08:30 - 22:00**


Tel.: 943 75 13 87

Aintzat hartu



Elena Irureta, aktorea

Begiraiozu Bai Euskarari Ziurtagiriari



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Biltegien kudeaketa informatizatua eta eraginkorra

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Zein da **egungo biltegien kudeaketaren egoera**? Zeintzuk dira **hobetzeko aukerak**? Zer lor dezakegu **merkatuak eskaintzen dizkigun tresnak** egoki erabiliz gero? Nola lortu **etengabeko inbentarioa** izatea irteeren eta sarreraren erregistro zorrotzarekin?

Deba Barrena
martxoak 21
ELGOIBAR

Makina Erremintaren
Institutua (IMH)

Orduetgia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala